




# Urbitik, uraren hiri-zikloa digitalizatzeko plana



**Urbidek, Arabako Foru Aldundiarekin batera, Urbitik izeneko plana jarri du abian. Plan horrek finantzaketaren % 100 lortu du, hau da, 7,5 milioi euro NextGenerationEU Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik.**

Lurraldeko uraren ziklo integralaren hobekuntzan aurrera egiteko konpromisoarekin, beste urrats bat eman dugu digitalizazio-plana abian jarrita.

Urbitik planak aukera emango du uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria bermatzeko eta honako hauen eskaera berriei erantzuteko: kudeaketa integratua, egoera ekologiko ona, arrazionaltasun ekonomikoa, kontuak ematea, garden-tasuna, parte-hartze publikoa, malgutasuna eta diziplinartekotasuna.



## Helburuak

Proiektuaren **helburuen** artean, honako hauek nabarmentzen dira: klima-aldaketa-ondorioak arintzea, ur-galerak murriztea, sistemen eraginkortasuna hobetzea eta energia-gastua optimizatzea.

Eta, halaber, uraren erabileren kontrol eraginkorrean aurrera egitea eta isurketen, uraren egoeraren nahiz kalitatearen kontrola hobetzea, besteak beste.

Hala, **trantsizio digitaleko jarduerak** garatzen dituzten uraren ziklo integralaren hobekuntza-proiektuetan lan egingo dugu, eta altan dagoen horniketa, banaketa, saneamendua eta arazketa barne hartuko ditu.



## Ekintza nagusiak

- Lehorte-egoeren aurreko **larrialdi-planak** gauzatzea
- Laudion eta Amurrión **birsortutako uraren erabilera** sustatzeko plana
- Egiturazko ihesak **diagnostikatzea, kontrolatzea eta kudeatzea**
- **Ur-bilketaren** parametro garrantzitsuenen monitorizazioa
- **Presen** monitorizazioa
- **Hondakin-uren isurketa**-puntuaren digitalizazioa
- **Aginte-koadro integrala** martxan jartzea.

Sartu webgunean: <https://www.urbide.eus/eus/digitalizando-el-agua.php>

**Faktura elektronikoki jaso nahi duzu?** Edozein udalerritako izanda ere, hona hemen herritarrei arreta emateko gure telefona

**945 035 035**